



Aduna
Alegia
Altzo
Anoeta
Ibarra
Irura
Larraul
Villabona
Zizurkil

Musika Tresnak

Baxua	Dultzaina
Biolina	Eskusoinua
Biolontxelo	Klarinetea
Gitarra	Panderoa
Perkusioa	Pianoa
Trikitixa	Saxofoia
Txalaparta	Tronpeta
Zeharkako flauta	Txistua

Instrumentu taldeak

Akordeoi taldea
Ganbara musika
Soka taldea
Txistu taldea

Beste ekintzak

Musika tailerra, armonia
kontzertuak, audizioak, etabar.

Bulandegi Bidea, 23 behea
20150 - Zizurkil (Gipuzkoa)
Tel./Faxa: 943 692619
E-mai: Loatzo@udal.gipuzkoa.net

Laboari omenaldi «hunkigarria» egin dio Loatzo musika eskolak

Aduna » 150 lagunek parte hartu zuten frontoian eginiko emanaldian eta 500 ikus-entzule baino gehiago izan ziren bertan.


IMANOL GARCIA

Loatzo musika eskolak emanaldi berezia antolatu zuen Adunan, Mikel Laboari omenaldia eginez. «Hunkigarria izan zen», azaldu du Miren Mujika Loatzoko zuzendaria. «Garrantzitsua iruditzen zaigu euskal kantagintza bultzatzea eta bereziki kantuen transmisioa», azaldu du, eta ideia horretatik abiatuta antolatu zuten omenaldia. Guztira 150 musikari, abeslari eta dantzarik parte hartu zuten frontoian egindako emanaldian. 500 lagunetik gora izan ziren ikus-entzuleak.

Loatzoko ikasleez eta irakasleez gain, eskualdeko kantujiretan aritzen diren zenbait abeslari eta mu-

sika eskolako ikasle ohiekere parte hartu zuten. Guztira musikari donostiarraren 13 abesti jo zituzten. «Horrelako emanaldi bat antolatzen dugun lehen aldia da», zehazten du Loatzoko zuzendariak eta emaitzerakin «oso gustura» azaldu dira. Laboaren familiarekin ere hitz egin zuten, baina abeslariaren emazteak ezin izan zuen joan kontzertura. «Pozik hartu zuen emazteak musika eskola batek horrelako omenaldia egitea», gaineratu du Mujikak.

Emanaldi-leku bezala Aduna aukeratzeak ere badu bere arrazoiak. Herri txiki batean egin nahi zuten eta Loatzokoekin jakin izan dute ere Laboa joan ohi zela herri inguruetara ibilalditxoak egitera, gustuko lekua zuela, beraz, «Adunako Udala eta herritarrek laguntza handia eman digute eta benetan eskertzen diegu», azaldu du Mujikak, «eta nabaritu da beraien zako ere zerbait berezia zela omenaldi hau».



Adunako frontoian Loatzo musika eskolak Mikel Laboari egineko omenaldiaren bi une. dv